Ander Deuna Enparantza, 5
48395 Sukarrieta (Bizkaia)
IFK/CIF: P-4808900-G

SUKARRIETAKO UDALA

www.sukarrieta.eus
udala.sukarrieta@bizkaia.org
Tfnoa: 946 870 715

SUKARRIETAKO UDALAREN AMARRALEKU PUNTUAK ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA IZAPIDETZEKO IDAZKETA- ETA AHOLKULARITZA- ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA. **Kontratu mota: Zerbitzuak** **Jardunbidea: Irekia** **Izapidea: Arrunta** **CPV kodea: 71400000-2**	**PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE REDACCIÓN Y ASESORAMIENTO EN LA TRAMITACIÓN DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN DE LOS PUNTOS DE AMARRE DE SUKARRIETA.** **Tipo de Contrato: Servicios** **Procedimiento: Abierto** **Tramitación: Ordinaria** **Código CPV: 71400000-2**
I.- KONTRATUAREN XEDEA Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana –aurrerantzean, EKZP– onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.28 artikuluak ontziak atrakatzeko eta amarratzeko azpiegiturak arautzen ditu. Ontziak atrakatzeko eta amarratzeko instalazio iraunkorrak eta horiekin lotutako zerbitzuak. D.8. Honela: "1.- Ontziak amarratzeko eta atrakatzeko instalazio iraunkorrak eta horiekin lotutako zerbitzuak dira. 2. – Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legea indarrean sartu zenean dagoeneko bertan zeuden amarratze-lekuak eta ontziralekuak mantentzea eta konpontzea baimentzen da. 3.– 5/1989 Legea indarrean sartu zenerako harri-hazta bidezko amarratze-lekuak bazirenez, eta horiek antolatu eta ingurumenean eta paisaian duten eragina murriztearren, Arketa eta Portuondo inguruetan, instalazioak mantentzeko eta konpontzeko ekintzen barnean jasoko dira ontziak lerroan, modu antolatuan eta jarraituan jartzea ahalbidetzen duten harri-hazta bidezko amarratze-lekuak prestatzeko jarduerak; horrela, murriztu egingo da eragindako ur-laminaren azalera. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako ingurumen arloko Sail eskudunak Plan Berezi bat onartuko du, Plan honetako V. tituluan	**I.- OBJETO DEL CONTRATO.** El Artículo 4.4.4.28 del Decreto 139/2016, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai – en lo sucesivo el PRUG-, regula las infraestructuras de atraque y amarre de embarcaciones. Instalaciones permanentes destinadas al amarre y atraque de embarcaciones y sus servicios asociados D.8., del siguiente modo: "1.– Se trata de las instalaciones permanentes destinadas al amarre y atraque de embarcaciones, así como sus servicios asociados. 2.– Se permite el mantenimiento y reparación de puntos de amarre y embarcaderos existentes a la entrada en vigor de la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. 3.– Atendiendo a la existencia de puntos de amarre a muertos a la entrada en vigor de la Ley 5/1989, y con el objeto de ordenar los mismos y minimizar su impacto ambiental y paisajístico, en las zonas de Arketa y Portuondo, quedarán comprendidas dentro de los actos de mantenimiento y reparación de las instalaciones, las actuaciones necesarias para disponer puntos de amarre a muerto que permitan la colocación de las embarcaciones en línea, de forma ordenada y continua, reduciendo de esta manera la superficie de lámina de agua afectada. A tal efecto, el Departamento competente en materia de medio

ezarritakoarekin bat etorriz, bi zona horiek mugatu eta arautzeko eta baimendutako gehieneko ontzi kopurua finkatzeko, betiere, horretarako 5/1989 Legea indarrean sartu zen unean itsasadarrean harri-hazta bidez finkatutako kopurua eta, betiere, inguru horrek duen harrera-ahalmena kontuan hartuta."	ambiente del Gobierno Vasco aprobará un Plan Especial de acuerdo con lo establecido en el Título V del presente Plan, que delimite y regule estas dos zonas y establezca el número de embarcaciones máximo permitidas, atendiendo al número de ellas aseguradas a muertos en la Ría a la entrada en vigor de la Ley 5/1989, y en todo caso, a la capacidad de acogida del medio."
Aipatutako artikuluan aipatzen den plana idaztea da kontratuaren xedea, bai eta behin betiko onarpena lortu arte hura izapidetzeko aholkularitza ematea ere. Horretarako, egin beharreko zuzenketak, argibideak eta txostenak egingo dira, eta, oro har, Udalari laguntza eta aholkularitza emango zaio beharrezkoak izan daitezkeen izapideetan.	El objeto del contrato es la redacción del plan a que se alude en el artículo citado, y el asesoramiento en su tramitación hasta lograr su aprobación definitiva, debiendo llevar a cabo las correcciones, las aclaraciones, los informes y, en general, ayudar y asesorar al Ayuntamiento en los trámites que puedan ser necesarios.
II. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUKETA.	**II.- NATURALEZA DEL CONTRATO Y SU REGULACIÓN.**
Plegu honetan ageri den kontratua zerbitzuen kontratu bat da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 17. artikuluan horretarako eskatzen dena betetzen baitu, hau da, "jarduera bat garatuz prestazioak edo obraz edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematen ditu, eta halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak".	El contrato objeto de este Pliego es un contrato de servicios, por cumplir lo requerido a tal efecto por el artículo 17 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, ya que su objeto consiste en "prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o suministro, incluyendo aquellos en que el adjudicatario se obligue a ejecutar el servicio de forma sucesiva y por precio unitario."
Kontratazioa plegu honetan ezarritakoaren arabera arautuko da, baita Baldintza Teknikoen Pleguan, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera eta Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (SPKLEO) onetsi zuen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera ere, bai eta estatuan zein Euskal Autonomia Erkidegoan kontratazioa arautzen duten gainerako xedapen guztien arabera ere, esparru honetan aplikatzekoak direnean.	La contratación se regulará por lo establecido en este Pliego, el de Prescripciones Técnicas, por la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento Jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo, 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (en adelante LCSP) y por el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (en adelante RGLCAP), y por cualesquiera otras disposiciones que regulen la contratación tanto a nivel estatal como de la Comunidad Autónoma de Euskadi y que resulten aplicables en el ámbito de la misma.

Kontratua prozedura ireki bidez adjudikatuko da, SPKLren 156. artikulutik 158. artikulura jasotakoa eta SPKLEOren kasuan kasuko artikuluetan edo horren ordezko xedapen arautzaileetan xedatutakoa baliatuz. Ondorio guztietarako, administrazio klausula berezien pleguk honek, preskripzio teknikoen pleguak eta eranskinek kontratu izaera izango dute, eta, hala, aldeen betebeharrak eta eskubideak arautuko dituzte; enpresa adjudikaziodunak adostasun froga gisa sinatu beharko ditu, kontratua sinatzeko ekitaldian.	El contrato se adjudicará por el procedimiento abierto previsto en los artículos 156 a 158 de la LCSP, y por los artículos correspondientes del RGLCAP o disposición reglamentaria que la sustituya. A todos los efectos, el presente Pliego, el Pliego de Prescripciones Técnicas y los correspondientes ANEXOS tendrán el carácter de documentos contractuales, y como tales, regulará, los derechos y obligaciones de las partes y deberán ser firmados en prueba de conformidad por la persona, física o jurídica adjudicataria en el acto de formalización de contrato.
III. ARRISKU ETA MENTURA Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 197. artikuluak ezartzen duenarekin bat, kontratistak arrisku eta menturara jardun beharko du kontratua egikaritzean.	**III.- RIESGO Y VENTURA.** Conforme establece el artículo 197 de la LCSP, el contrato se ejecutará en todo caso a riesgo y ventura del contratista.
IV. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, BALIO ZENBATETSIA, PREZIOA ETA KREDITUA IZATEA. Hauxe da kontratuaren arabera kontratazio-organoak konprometitu dezakeen gastuaren gehieneko muga: Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua .24.793,39.-€ % 21eko BEZa.....5.206,61.-€ GUZTIRA.....30.000,00.-€ Kontratuari eskatu dakiokeen lizitazio- eta publizitate-prozedura zehazteko baino ez, kontratu honetan KALKULATU DEN BALIOA, GUZTIRA HOGEITALAU MILA ZAZPIREHUN LAROGEITA HAMAHIRU EUROKOA DA HOGEITA HEMERETZI ZENTIMOEKIN (24.793,39.-€). Hori guztia SPKLren 101. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, non adierazi den kontratuen balio zenbatetsia zenbateko osoaren arabera zehazten dela, BEZa gehitu gabe, eta, indarrean dauden lan-araudiak aplikatzetik sortutako kostuez gain, aintzat hartu beharko dira, gutxienez, kontratuaren	**IV.- PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN, VALOR ESTIMADO, PRECIO Y EXISTENCIA DE CRÉDITO PRESUPUESTARIO SUFICIENTE.** El límite máximo de gasto que en virtud del contrato puede comprometer el el órgano de contratación es el siguiente: Presupuesto base de licitación... 24.793,39.-€ IVA 21%..... 5.206,61.-€ TOTAL..... 30.000,00.-€ El VALOR ESTIMADO TOTAL del presente contrato exclusivamente a efectos de determinación del procedimiento de licitación y publicidad exigible al mismo asciende a la cantidad de VEINTICUATRO MIL EUROS CON TREINTA Y NUEVE CÉNTIMOS (24.793,39.-€) Todo ello conforme a lo señalado en el artículo 101 de la LCSP, en el que se indica que el valor estimado de los contratos vendrá determinado por el importe total, sin incluir el IVA, debiendo tenerse en cuenta, como mínimo, además de los costes derivados de la aplicación de las normativas laborales vigentes, cualquier forma de

behin-behineko edozein aukera-modu eta kontratuaren luzapenak. Kontratuaren prezioa adjudikatzen den unean dagokiona izango da, eta ezin izango da administrazioak emandako lizitazio-karga gainditu. Ondorio guztietarako, kontratatutako prestazioa modu egokian egikaritzeko enpresa kontratistak egin beharreko zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak kontratuaren prezioan barne hartzen direla ulertuko da, baita indarrean dauden xedapenen arabera aplikagarriak diren beste edozein tasa ere, eta mota guztietako zergak eta lizentziak, udal mailakoak, probintziakoak zein estatukoak. Kontratu hau betetzetik administrazioak izango dituen betebehar ekonomikoei aurre egiteko 17.880,12.-€ko kreditua dago, 173-643.00 aurrekontu-aplikazioan kontsignatuta, aurtengo aurrekontuaren kargura. Modu berean, aurrekontu arloan eskumena daukan organoak konpromisoa hartuko du eragina duten etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan horretarako kredituak gordetzeko. Kontratua burutu behar den ekitaldietan horren ondoriozko betebeharrak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintzapean egongo da adjudikazioa, SPKL ak 3. Xedapen Gehiagarriaren arabera.	opción eventual y las eventuales prórrogas del contrato. El precio del contrato será el que resulte de la adjudicación del mismo y no podrá superar el tipo de licitación formulado por la Administración. A todos los efectos, se entenderá que el precio del contrato comprende todos los gastos directos e indirectos que la empresa contratista deba realizar para la normal ejecución de la prestación contratada, y cualesquiera otras tasas que resulten de la aplicación según las disposiciones vigentes, y toda clase de impuestos y licencias tanto municipales, como provinciales y estatales. Existe crédito de 17.880,12.-€ para atender las obligaciones económicas que se deriven para la Administración del cumplimiento de este contrato, consigando en la aplicación presupuestaria 173-643.00 con cargo al presupuesto del año en curso. Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria, se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados. La adjudicación queda sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del contrato en los ejercicios en que está prevista la ejecución del mismo, según lo indicado en la Disposición Adicional 3ª de la LCSP.
V. KONTRATUA BETETZEKO EPEA Kontratu honek URTE BAT (1) iraungo du, baina epea dokumentua behin betiko onartzeko behar dena izango da, HIRU (3) URTEKO mugarekin.	**V.- PLAZO DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO.** El plazo de duración del contrato será de UN (1) AÑO, si bien se considera que el plazo será el necesario para lograr la aprobación definitiva del documento, con un límite de TRES (3) AÑOS.
VI. ESKATU DAITEZKEN BERMEAK BEHIN BEHINEKO BERMEA SKPLren 159.4.b) artikuluarekin bat etorriz, ez da beharrezkoa behin-behineko bermea eratzea.	**VI.- GARANTÍAS EXIGIBLES** GARANTÍA PROVISIONAL De acuerdo con el artículo 159.4.b) de la LCSP, no procede la exigencia de garantía provisional.

BEHIN BETIKO BERMEA	GARANTÍA DEFINITIVA
Behin betiko bermearen zenbatekoa lizitatzaileek eskainitako azken prezioaren %5ekoa izango da, BEZa aparte, SPKLaren 107. Artikuluaren arabera. Behin betiko fidantza hamar egun balioduneko epean ezarri beharko da kontratazio-organoak eskatzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, betiere adjudikazioa egin aurretik. Bermea SPKL 2017ko 108. artikuluan jasotako edozein formatan onartu ahalko da. Fidantza jarri dela egiaztatzeko bide elektronikoak erabili ahal izango dira. Jartzen den bermeak honako kontzeptuei erantzun beharko die, 110. artikuluarekin bat: a) Kontratua epearen barruan sinatuko da, 153. artikuluan ezarritakoarekin bat. b) Kontratistari ezarritako zigorrak, Lege honen 192. artikuluaren arabera. c) Kontratuan jasotako prestazioak, kontratistak eskaini eta kontratazio organoak onartutako hobekuntzak barne, kontratista lana betetzerakoan atzeratzen delako Administrazioari eragiten zaizkion gastuak eta kontratua egikaritzerakoan nahiz hura ez betetzeagatik Administrazioari eragiten zaizkion kalte eta galerak (baldin eta kontratua bertan behera uztea bidezkoa ez bada) behar bezala gauzatzea. d) Kontratua amaitutzat ematen den kasuetan agindu daitekeen konfiskazioa, kontratuan bertan zein Lege honetan adierazitakoaren arabera. e) Gainera, obra, zerbitzu eta hornikuntza kontratuetan, kontratuan bertan aurreikusitako berme-aldian eraikitako edo hornitutako ondasunetan edo emandako zerbitzuetan egon litezkeen akats edo hutsuneengatik erantzungo du behin betiko bermeak.	Según lo dispuesto en el artículo 107 de la LCSP, se deberá constituir a disposición del órgano de contratación, una garantía del 5% del precio final ofertado excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido en el plazo diez (10) días hábiles a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez aceptada la propuesta de la mesa por el órgano de contratación y con carácter previo a la adjudicación. Será admisible el depósito de la garantía en cualquiera de las formas recogidas en el artículo 108 de la LCSP. La acreditación de la constitución de la garantía podrá hacerse mediante medios electrónicos. La garantía depositada, conforme al artículo 110 de la LCSP, responderá de los siguientes conceptos: a) De la obligación de formalizar el contrato en plazo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 153. b) De las penalidades impuestas al contratista conforme al artículo 192 de la presente Ley. c) De la correcta ejecución de las prestaciones contempladas en el contrato incluidas las mejoras que ofertadas por el contratista hayan sido aceptadas por el órgano de contratación, de los gastos originados a la Administración por la demora del contratista en el cumplimiento de sus obligaciones, y de los daños y perjuicios ocasionados a la misma con motivo de la ejecución del contrato o por su incumplimiento, cuando no proceda su resolución. d) De la incautación que puede decretarse en los casos de resolución del contrato, de acuerdo con lo que en él o en esta Ley esté establecido. e) Además, en los contratos de obras, de servicios y de suministros, la garantía definitiva responderá de la inexistencia de vicios o defectos de los bienes construidos o suministrados o de los servicios prestados durante el plazo de

	garantía que se haya previsto en el contrato.
Berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, baldintza hori betetzen ez badu, Administrazioak ez du haren aldeko adjudikazioa egingo, eta 150. artikuluko 2. ataleko azken aurreko paragrafoan adierazitakoa aplikatuko da.	De no cumplirse adecuadamente el requerimiento en el plazo adecuado, la Administración no efectuará la adjudicación a su favor, siendo de aplicación lo dispuesto en el penúltimo párrafo del apartado 2 del artículo 150 de la LCSP.
Kontratuan egindako aldaketaren baten ondorioz prezioa ere aldatu egiten bada, bermea egokitu egin beharko da, prezio berriarekiko proportzio egokia gorde dezan, enpresaburuari kontratua aldatzeko erabakiaren berri eman eta hamabost egun natural igaro baino lehen. (109.3 artikulua).	Cuando, como consecuencia de una modificación de contrato, experimente variación el precio del mismo, deberá reajustarse la garantía para que guarde la debida proporción con el nuevo precio modificado, en el plazo de quince (15) días contados desde la fecha en que se notifique a la persona o empresa djudicataria el acuerdo de modificación (artículo 109.3)
Bermea EZ da itzuliko ez ezeztatuko berme aldia iraungi eta kontratua behar bezala bete arte, edo azken hori kontratistaren errurik gabe suntsitzen denera arte.	La garantía NO será devuelta o cancelada hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía y cumplido satisfactoriamente el contrato de que se trate, o hasta que se declare la resolución de éste sin culpa de la persona o empresa contratista.
Kontratuaren likidazioa onartu ondoren eta berme aldia amaitu eta gero erantzukizunik agertzen ez bada, eratutako bermea bueltatuko da edo abala edo kauzio asegurua ezereztuko da. Bermea ez itzultze aldera, kontratuaren xedean enplegatutako langileen gizarte segurantzako gastu edo soldatak tarteko erreklamazio judiziala jasotzea edo erreklamazio judizialaren berri izatea erantzukizun gisa hartuko da.	Aprobada la liquidación del contrato y transcurrido el plazo de garantía, si no resultaren responsabilidades, se devolverá la garantía constituida o se cancelará el aval o seguro de caución. Se considerará responsabilidad, a efectos de no devolver la garantía, la recepción de reclamación judicial o conocimiento de reclamación judicial por los salarios o gastos de Seguridad Social por las personas empleadas en el servicio objeto del contrato.
Itzultzeko erabakia hartu eta interesdunari jakinarazi beharko zaio bi (2) hilabeteko epean, berme aldia bukatzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta gero, Administrazioak zor dion diru kopurua ordaindu beharko dio kontratistari, gehi epe hori mugaeguneratzen denetik bermea itzultzeko egunera arte igarotzen den aldiari dagokion diruaren legezko interesa, hori ordaindu ez bada Administrazioari egotz dakiokeen arrazoi batengatik.	El acuerdo de devolución deberá adoptarse y notificarse a la persona interesada en el plazo de dos (2) meses desde la finalización del plazo de garantía. Transcurrido el mismo, la Administración deberá abonar a la persona contratista la cantidad adeudada incrementada con el interés legal del dinero correspondiente al período transcurrido desde el vencimiento del citado plazo hasta la fecha de la devolución de la garantía, si esta no se hubiera hecho efectiva por causa imputable a la Administración.

Kontratuak lagatzen direnean lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko lagapen hartzailearena modu formalean eratu arte. Kontratua amaitu eta HIRU (3) hilabete igaro ondoren, eta berme aldia bukatuta, onarpen formala eta likidazioa ez badira egin kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, gehiago berandutu gabe bermeak itzuli edo kitatuko dira, SPKLren 110. artikuluak aipatzen dituen erantzukizunak araztu eta gero.	En los casos de cesión de contratos no se procederá a la devolución o cancelación de la garantía prestada por el cedente hasta que se halle formalmente constituida la del cesionario. Transcurrido TRES (3) mes desde la fecha de terminación del contrato, y vencido el plazo de garantía, sin que la recepción formal y la liquidación hubiesen tenido lugar por causas no imputables al contratista, se procederá, sin más demora, a la devolución o cancelación de las garantías una vez depuradas las responsabilidades a que se refiere el artículo 110 de la LCSP.
VII. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA KONTRATATZEKO GAITASUNA Kontratazio-jardunbide honetan, pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa badute, beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekurik ez badute. Era berean, bete beharko dira SPKLren 70. artikuluan aipatutako baldintza bereziak, bateragarritasunari buruzkoak. Halaber, euren kabuz edo baimendutako pertsona baten ordezkaritzarekin egin ahalko dute horretarako emandako boterearen bidez. Pertsona juridiko baten izenean horren kideren batek parte hartzen duenean, dokumentuen bidez justifikatu beharko du horretarako ahalmena duela. Edonola ere, ordezkari horrek aipatu diren kontratatzeko ezintasunetatik salbuetsita egon beharko du. Enpresaburuek, gainera, kontratu honen xedea den jarduera egiteko edo zerbitzua emateko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute. Espainiakoak ez diren enpresek, Europar Batasunekoek edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu batekoek, sektore publikoarekin kontratatzeko ahalmena izango dute, baldin eta enpresak ezarrita dauden estatuko legeen	**VII.- APTITUD PARA CONTRATAR Y SOLVENCIA** APTITUD PARA CONTRATAR Podrán presentar ofertas en el presente procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP. De igual modo deberán cumplirse las condiciones especiales de compatibilidad señaladas en el artículo 70 de la LCSP. Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas. Los empresarios deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación objeto del presente contrato. Tendrán capacidad para contratar las empresas no españolas de Estados miembros de la Unión Europea o de los Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo que, con arreglo a la legislación del Estado en que estén

arabera gaituta badaude dena delako zerbitzua emateko. Estatu bateko legediak estatu horretan ezarrita dauden enpresei dena delako zerbitzua emateko baimen bereziren bat edo organizazio jakin bateko baimena eskatzen badie, enpresek baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute. Kontratua jarduteko gaitasunik, kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionalik, eskatzen zaien gaikuntza enpresarialik edo profesionalik, beharrezko sailkapenik, aginduzkoa denean, ez duten edo kontratatzeko debekuren bat duten pertsonei adjudikatzen bazaie, adjudikazioa baliogabea izango da SPKLren 3. artikuluarekin bat.	establecidas, se encuentren habilitadas para realizar la prestación de que se trate. Cuando la legislación del Estado en que se encuentren establecidas exija una autorización especial o la pertenencia a una determinada organización para poder prestar en él el servicio de que se trate, deberán acreditar que cumplen este requisito. La adjudicación de contratos a favor de personas que carezcan de la capacidad de obrar, de la solvencia económica, financiera, técnica o profesional; de la habilitación empresarial o profesional cuando sea exigible; de la clasificación, cuando esta proceda o que estén incursas en prohibición de contratar serán nulas en los términos del artículo 39 de la LCSP.
Kontratazio-organoak ezarritako gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte lizitatzaileek, ekonomia- eta finantza-kaudimenari eta gaitasun profesional edo teknikoari dagokienez.	Los licitadores deberán estar en posesión de las condiciones mínimas de solvencia económica y financiera y técnica o profesional, que se determinen por el órgano de contratación:
KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.	SOLVENCIA ECONÓMICA Y FINANCIERA
- Kontratu honen xedetik eratorritako berariazko arriskuak eta arrisku profesionalak estaltzen dituen erantzukizun zibileko asegurua izatea. Kontratuaren berezko arriskuak eta, bereziki, erantzukizun zibilekoak (orokorra, profesionala eta patronala) estaltzen dituen aseguru polizaren kopia bat eta polizaren ordainagiria aurkeztuko dira, gutxienez 600.000,00 eurokoa urteko eta ezbeharreko. Enpresaren polizak ez badu izendatutako pertsonaren erantzukizuna estaltzen, orduan pertsona langile horren poliza ere aurkeztu beharko da, SPKLren 87. artikuluarekin bat etorriz.	- Justificante de la existencia de un seguro de responsabilidad civil que cubra los riesgos profesionales y específicamente los derivados del objeto de este contrato: Se presentará una copia de la póliza de seguro y justificante del pago de la misma que cubra los riesgos inherentes al contrato y en especial la responsabilidad civil (general, profesional y patronal) por un importe mínimo de 600.000,00 € por anualidad y siniestro. Si la póliza de la empresa no cubriera la responsabilidad de la persona designada, se deberá presentar también la póliza de dicha persona trabajadora, de acuerdo con el artículo 87.1.b) de la LCSP.
KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA	SOLVENCIA TÉCNICA O PROFESIONAL:
- 90.1.a) art. Azken bost urteetan kontratuaren xede izan diren zerbitzu nagsien zerrenda, honako hauek adierazita: zenbaekoa, datak eta horien	- Art. 90.1.a) Una relación de los principales servicios objeto del contrato realizadas durante los últimos cinco añosque incluya importe, fechas y

onuradun publiko edo pribatuak, eta zerbitzu garrantzitsuenetarako gauzatze onaren ziurtagiriak. Egiaztatu beharko da, gutzienez, plan berezi sektoriala idazteko zerbitzu-kontratu bat egin dela ingurumenaren aldetik kalteberak diren esparruetan eragina duena, edo gutxienez, portuko bi plan edo proiektu, urtean 150.000,00.-€koak, 3 urteko aldi horretan urtebetez.	beneficiarios públicos o privados de los mismos, acompañada de certificados de buena ejecución para los más importantes. Se deberá acreditar la prestación de, al menos, un contrato de servicios de redacción del plan especial sectorial, con incidencia en ámbitos ambientalmente sensibles, o, al menos, dos planes o proyectos portuarios, por importe total de 150.000,00.-€ anuales, durante un año en dicho periodo de 3 años.
- 90.1.b) art. Kontratua gauzatzeari zuzenean atxikitako langileen titulazio akademikoak eta profesionalal. Gutxienez, kontratuari atxiki beharko zaizkio bide, ubide eta portuetako injeniari bat, edo itxasoko portuetako proiektuak egiteko gaitasuna duen injeniari bat, eta ingurumen arloko teknikari bat.	- Art. 90.1.b) Titulaciones académicas y profesionales del personal adscrito directamente a la ejecución del contrato. Como mínimo deberá adscribir al contrato una persona ingeniera de caminos, canales y puertos, o ingeniería habilitada para la redacción de proyectos de puertos marítimos, y una persona técnico ambientalista.
EGINKIZUN KRITIKOAK. Kontratu honetako eginkizunak, eta 215-2-e artikuluan xedatutakoarekin bat, ezingo dira azpikontratatu, eta kontratatzaile nagusiak exekutatu beharko ditu zuzenean. Goian ezarritako baldintzak urratzeak kontratuaren exekuzioan duen eraginaren arabera, Kontratuen Legean aurreikusitako ondorioez gain, ondoren zehazten diren ondorioetako bat izango du: - Azpikontratuaren zenbatekoaren % 50a bitarteko zigorra ezarri ahal izango zaio kontratistari. - Kontratua etetea, betiere Legearen 211. artikuluaren 1. ataleko f) letraren bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.	TAREAS CRÍTICAS. Las tareas del presente contrato, de conformidad con lo señalado en los artículos 215.2. e) NO pueden ser objeto de subcontratación, debiendo ser estas ejecutadas directamente por el contratista principal. La infracción de las condiciones establecidas anteriormente tendrá, entre otras previstas en la LCSP, y en función de la repercusión en la ejecución del contrato, alguna de las siguientes consecuencias: - Imposición al contratista de una penalidad de hasta un 50% del importe del subcontrato. - La resolución del contrato, siempre y cuando se cumplan los requisitos establecidos en el artículo 211.1.f) de la LCSP.
VIII. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIO OSAGARRIA	**VIII. PROPOSICIONES Y DOCUMENTACIÓN EXIGIDA PARA SU ADMISIÓN A LA LICITACIÓN.**

Kontratazio honen espedientea, SPKLren 116. artikuluak xedatzen duenez, kontratatzailearen profilean egongo da, kontratazioa amaitu arte (www.sukarrieta.eus). Era berean, Administrazio honen bulegoan aztertu ahal izango da, 09:00etatik 14:00etara, eskaintzak aurkezteko azken egunera arte. SPKLren 136. artikuluak jasotzen duenez, eskaintzak formatu elektronikoan aurkeztuko dira, Sukarrietako Udalaren webguneko plataformaren bidez (dokumentuak formatu digitalean aurkezteko plataforma): www.sukarrieta.eus, gehienez ere HAMABOST (15) eguneko epean, iragarkia Kontratatzailearen Profilean agertu eta hurrengo egunetik hasita. Lizitatzaileek kontratazio-plataforman edo eskaintzak aurkezteko web telematikoan adierazitako moduan aurkeztu beharko dituztepproposamenak; hala ere, hasiera batean, eta legean xedatutakoa betez, karpeta bakar bat egin beharko da, honako izen hau jarrita: **"SUKARRIETAKO UDALAREN AMARRALEKU PUNTUAK ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA IZAPIDETZEKO IDAZKETA- ETA AHOLKULARITZA- ZERBITZUREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"**	El expediente de esta contratación, según dispone el artículo 116 de la LCSP, estará expuesto en el Perfil de Contratante hasta la conclusión del mismo (www.sukarrieta.eus). Asimismo, podrá ser examinado en la oficina de esta Administración, de 09:00 a 14:00 horas, hasta el último día de presentación de ofertas. Tal y como se recoge en el artículo 136 de la LCSP, las ofertas se presentarán en formato electrónico a través de la plataforma de presentación digital de la web del Ayuntamiento de Sukarrieta: www.sukarrieta.eus, en el plazo máximo de QUINCE (15) días, contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio en el Perfil de Contratante. La persona o entidad licitadora habrá de presentar las proposiciones según se señale en la plataforma de contratación o en la web telemática de presentación de ofertas, si bien, en principio, y a tenor de lo dispuesto en la Ley se deberá hacer mediante una sola carpeta, denominada: ***"PROPOSICIÓN PARA TOMAR PARTE EN LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE REDACCIÓN Y ASESORAMIENTO EN LA TRAMITACIÓN DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN DE LOS PUNTOS DE AMARRE EN SUKARRIETA"***
1. KARPETA: Dokumentazio Administratiboa eta ebalua daitezkeen irizpideak	**CARPETA 1: Documentación Administrativa y criterios evaluables**
A) Erantzukizunpeko deklarazioa, Europako kontratazio agiri bakarraren formularioari egokituko zaiona, 141. artikuluan eta baldintza-agiri honen I. Eranskinean adierazitakoari jarraituz. Adierazpenak sinadura digitala eta behar den identifikazioa izango du, eta hartan honako hau adieraziko du lizitatzaileak: (Horrela badagokio) 1. Sozietatea balio duen eran eratuta dagoela eta bere xede sozialaren arabera lizitaziora aurkeztu ahal delarik, eta adierazpenaren sinatzaileak behar den	**A)** Declaración responsable que se ajustará al formulario de documento europeo único de contratación de conformidad con lo indicado en el artículo 141, y según Anexo I al presente Pliego, que deberá estar firmada digitalmente y con la correspondiente identificación, en la que la persona o entidad licitadora ponga de manifiesto lo siguiente: (En su caso) 1.º Que la sociedad está válidamente constituida y que conforme a su objeto social puede presentarse a la licitación, así como que el firmante de la declaración ostenta la debida representación

ordezkaritza duela proposamena aurkezteko eta hura ordezkatzeko.	para la presentación de la proposición y de aquella.
2. Ez duela ez berez, ez hedapenez, SPKLren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz, kontratatzeko debekurik.	2.° Que no está incursa en prohibición de contratar por sí misma ni por extensión como consecuencia de la aplicación del artículo 71.3 de la LCSP.
3. Posta elektronikoko helbide bat izendatzea, jakinarazpenak egiteko; helbide hori SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera «gaitu» beharko da.	3.° La designación de una dirección de correo electrónico en que efectuar las notificaciones, que deberá ser «habilitada» de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP.
B) Kasu bereziak:	**B)** Casos especiales:
a) Atzerriko enpresariak Nazioarteko akordioak direla-eta Espainiak dauzkan betebeharren aplikazioa alde batera utzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela 3. artikuluan aipatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko entitateekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean. Txosten hori Espainiak atzerrian duen kasuan kasuko bulego ekonomiko eta merkataritzakoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari gehituko zaio. Halaber, kontratuen adjudikazioduna Europar Batasunaz kanpoko enpresa bat denean, Espainian sukurtsal bat ireki dezan, eragiketak egiteko ahalordedunak edo ordezkariak izenda ditzan, eta sukurtsal horiek Merkataritzako Erregistroan inskribaturik egon daitezen eskatuko zaio; beraz, eskaintza aurkezteak esan nahi du eskakizun hori onartu egiten duela eskaintzaileak.	a) Empresas extranjeras Sin perjuicio de la aplicación de las obligaciones de España derivadas de acuerdos internacionales, las personas físicas o jurídicas de Estados no pertenecientes a la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo deberán justificar mediante informe que el Estado de procedencia de la empresa extranjera admite a su vez la participación de empresas españolas en la contratación con los entes del sector público asimilables a los enumerados en el artículo 3, en forma sustancialmente análoga. Dicho informe será elaborado por la correspondiente Oficina Económica y Comercial de España en el exterior y se acompañará a la documentación que se presente. Asimismo, se exigirá a la empresa no comunitaria que resulte adjudicataria que abra una sucursal en el estado español, con designación de apoderados o representantes para sus operaciones, y que estén inscritas en el Registro Mercantil, por lo que la presentación de la oferta implicará la aceptación de esta exigencia.
b) ABEEk Lizitazioari begira, lizitazioan aldi baterako enpresa-elkarte gisa parte hartu nahi duten enpresariek honako hauek adierazi beharko dituzte: partaideen izenak eta egoera, bakoitzak zenbateko partaidetza duen, eta ABEEren	b) UTEs A efectos de la licitación, los empresarios que deseen concurrir integrados en una UTE deberán indicar los nombres y circunstancias de los que la constituyan, la participación de cada uno y el nombre del representante o apoderado único de

ordezkari edo ahalordedun bakarraren izen-abizenak, kontratua ABEEri adjudikatzen bazaio. Enpresa-elkartea Espainiako estatuko enpresariek, Europar Batasuneko estatu kide batekoak ez diren enpresariek eta Europar Batasuneko estatu kide bateko atzerriko enpresariek edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu batekoek osatzen badute, lehenengo bi taldeetakoek sailkapena egiaztatu beharko dute, eta azken taldekoek kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo gaitasun tekniko edo profesionala. ABEEren kasuan, elkartea osatzen duten enpresa bakoitzak, indibidualki eskatzen zaion dokumentazioaz gain, 69. artikuluan aipatutako adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratua adjudikatzen bazaie, aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratuko dutela konpromisoari buruzkoa. c) Lotutako enpresak Lizitatzaileek beti adierazi behar dute enpresa lotuta dagoen ala ez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatutako egoerekin bat etorriz, eta 2017ko SPKLren 149.3 artikuluan eta Administrazio Publikoen Kontratazio Legearen Erregelamendu Orokorraren 86. artikuluan ezarritako ondorioetarako. Horretarako, adierazpena aurkeztu beharra jasoko da. **C)** FORU JUDIZIALAREN DEKLARAZIOA. Enpresa atzerritarrek espainiar epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jartzen direlako adierazpena egin behar dute, zuzenean edo zeharka kontratuak ekar litzakeen gorabehera guztietarako. Lizitatzaileak atzerritar jurisdikzio foruari (baleuka) uko egingo dio. **D)** Enpresaria Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta badago edo Europar Batasuneko estatu baten datu-base nazional batean agertzen bada –esate baterako, enpresaren espediente birtual batean, dokumentuen biltegiratze elektronikorako sistema batean edo aurre-kalifikaziorako sistema batean–, eta horiek organo horietarako doan eskuragarri daudenean, enpresariak ez du aipatutako tokietan	la UTE en caso de resultar esta adjudicataria del contrato. Cuando concurran en la UTE empresarios nacionales, extranjeros que no sean nacionales de un Estado miembro de la Unión Europea y extranjeros que sean nacionales de un Estado miembro de la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo, los que pertenezcan a los dos primeros grupos deberán acreditar su clasificación y estos últimos su solvencia económica y financiera y técnica. La UTE deberán presentar, respecto a cada una de las empresas integrantes de la agrupación, además de la documentación que para cada una de ellas sea exigible, la declaración prevista en el artículo 69, asumiendo el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato. c) Empresas vinculadas Se indicará en todo caso por las personas o entidades licitadoras la condición de empresa vinculada o no a que se refiere el artículo 42 del Código de Comercio a los efectos establecidos en los artículos 149.3 de la LCSP y 86 del RGLCAP, para lo cual se expresará la exigencia de presentar una declaración. **C)** DECLARACIÓN DE FUERO JUDICIAL. Para las empresas extranjeras, declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante. **D)** La persona empresaria que esté inscrita en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y estos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligada a presentar los documentos justificativos

inskribatutako datuei buruzko egiaztagiririk edo dokumentu-frogarik aurkezteko beharrik izango. Halaber, dagokion autonomia-erkidegoaren erregistro ofizialean izena emanda egon daiteke, eskaintzak aurkezteko azken egunean, baldin eta horrek lehia mugatzen ez badu. Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekuei buruz aurreko apartatuetan jasotako baldintzek indarrean egon behar dute eskaintzak aurkezteko azken egunean, eta beren horretan iraun behar dute kontratua burutzeko orduan ere. Kontratazio-organoak edo mahaiak lizitatzaileei eskatu ahalko dizkie frogagiri guztiak edo batzuk aurkezteko, adierazpenaren indarraldiari edo sinesgarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak daudenean, prozeduraren garapen egokirako beharrezko denean eta, edozelan ere, kontratua adjudikatu aurretik. **E)** Pertsona fisikoek, A) atalean aipatu den aldarrikapenaz gain (I. ERANSKINA), NANaren kopia aurkeztu beharko dute. **F)** Botere-eskritura, askietsia eta legeztatuta, kasuan kasu, beste pertsona baten ordezkaritzan jarduten bada. **G) Proposamen ekonomikoa.** Proposamen ekonomikoa II. Eranskinean jasotzen den ereduari egokiko zaio. Nahitaezkoa da agiri hau. **H) Eskaintza teknikoa.** Plegu honetako hamargarren klausularen arabera baloratzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia jasoko da. Hauxe IV. Eranskinean jasotzen den ereduari egokiko zaio. Lizitatzaileek nahi duten dokumentazio osagarri guztia erantsi ahal izango dute, baldin eta eskaintzak baloratzeko merezimenduak egiaztatzeko balio dutela uste badute, pleguetan ezarritako irizpideak aintzat hartuta.	u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares. También podrá estar inscrito en el Registro Oficial de la correspondiente Comunidad Autónoma, en la fecha final de presentación de ofertas siempre que no se vea limitada la concurrencia. Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refieren los apartados anteriores, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato. El órgano o la mesa de contratación podrán pedir a las personas o entidades licitadoras que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato. **E)** Las personas físicas deberán presentar copia del D.N.I., además de la declaración señalada en el apartado A) (ANEXO I). **F)** Escritura de Poder, bastanteada y legalizada, en su caso, si se actúa en representación de otra persona. **G) Propuesta económica.** La Proposición económica será ajustada al modelo establecido en el ANEXO II. Es un documento obligatorio. **H) Propuesta técnica.** Incluirá toda la documentación que sea precisa valorar según la cláusula décima del presente Pliego. Las personas o entidades licitadoras podrán adjuntar cuanta documentación adicional, estimen oportuna para acreditar los méritos que sirvan para valorar las ofertas, a tenor de los criterios establecidos en el pliego.
XI. PLEGUA AZTERTZEA	**IX. EXAMEN DEL PLIEGO.**

Sukarrietako Udaletxean aztertu ahal izango da lehiaketa honetako baldintzen plegua eta, gainera, kopiak lortu ahal izango dira. Iragarkia Kontratatzailearen Profilean argitaratzen den egunean hasiko da epea eta proposamenak aurkezteko azken egunean amaituko da. Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara. Horren eta lizitazio-iragarkiaren kopia bat jarriko dira Sukarrietako Udalaren kontratatzailearen profilean www.sukarrieta.eus.	El pliego de condiciones de este concurso podrá ser examinado y obtenerse copias del mismo en el Ayuntamiento de Sukarrieta, desde la publicación del anuncio en el Perfil del Cantratante, hasta el día de la finalización del plazo para la presentación de proposiciones, de lunes a viernes en horario de 09:00 a 14:00. Una copia del mismo y del anuncio de licitación estará colgado en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Sukarrieta www.sukarrieta.eus
X. BALIOESTEKO IRIZPIDEAK Kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, garrantzitsuenetik hasita eta atxikitzen zaien haztapen-mailaz, honako hauek dira:	**X. CRITERIOS DE VALORACIÓN.** Los criterios de valoración de las ofertas que han de servir de base para la adjudicación del contrato relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye, son los siguientes:
AUTOMATIKOKI BALORATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK EDO BALIO-JUDIZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKOAK: 35 puntu	**CRITERIOS NO AUTOMÁTICAMENTE EVALUABLES, O EVALUABLES MEDIANTE JUICIO DE VALOR: 35 puntos**
A) Memoria teknikoa. 35 puntu arte Egin beharreko lanak deskribatzen dituen memoria tekniko bat aurkeztu beharko da, jarduketen kronograma batekin. Era berean, memoria teknikoan ainguralekua antolatzeko ideiak planteatu beharko dira, amarratze-sistemak hobetzeko proposamenekin, ingurumen-hobekuntzak dakartzaten kudeaketa-sistemekin, eta biodibertsitatea kontserbatzen eta are handitzen edo hobetzen laguntzen duten amarratze-sistemen ezarpenarekin. Puntuazioa honela banatuko da: Lan egiteko moduaren proposamena eta kronograma: 15 puntu	**A) Memoria técnica: Hasta 35 puntos** Se deberá presentar una Memoria Técnica en la que se describan los trabajos a realizar, con un cronograma de actuaciones. Asimismo, en la Memoria Técnica se deberán plantear ideas de ordenación del fondeadero, con propuestas de mejoras de sistemas de amarre, sistemas de gestión que impliquen mejoras ambientales, implantación de sistemas de amarre que favorezcan la conservación e incluso el aumento o mejora de la biodiversidad… La puntuación se dividirá en: Propuesta de forma de trabajo y cronograma: 15 puntos

